

Eduardo Chillida eskultore arras ezaguterraza iruditu ohi zaigu; hainbeste, non uste ohi baitugu ez duela azalpenik behar. XX. mendeko artearen historian *unicum* bat balitz bezala irudikatzen dugu, eta bere obra hain pertsonala, ezin helduzkoa eta ia intemporal dirudiela.

Baina berdingabea izatearen aura hori gorabehera, ezinbestean ikusten dugu, halaber, bere garaia seme gisa. Halaxe baita, izan, artista oro. Horregatik, Chillida «jaurtitzen» dugunean bere garaikideen ozeano artistikoaren erdira, azalera ateratzen da arte plastikoetan ez ezik filosofian, arkitekturan, dantzan, argazkigintzan edo musikan garai hartan nazioartean ibili ziren idealek, kezkek eta esperimenteriek bilbatutako sare fin hori; gogoetarako anbizioa eta jakin-min kultural aparta baitzuten hark ere bereizgarri.

Erakusketak ardatz ditu 1950etik 1970era bitarteko bi hamarkadak, zeinetan Europako arteak berreraiki baitzuen modernitatearen egitura, gerrako tragedien ondoren. Une jakingarria izan zen, gainera, eskulturaren historian: izan ere, orduantxe atera zen mende ia oso bateko lozorrotik eta berpiztu zen arte berri eta erradikal bihurturik. Eta, azkenik, sortze-urteak izan ziren Chillidarentzat, orduan eraiki baitzuen arteari buruzko bere ikuspegi pertsonala.

Hamarkada aberatsak, beraz; sekretuki aktiboak, abentura esperimenteriez beteak. Eta, hain zuzen ere, abentura horiez dihardu erakusketa honek;

zenbait ahotsera egindako gogoetaz, kontakizun gurutzatuz, eremu magnetikoez. Azken batean, hauxe proposatzen zaigu: Chillida «elkarrizketan» aurkeztea, bere garaikoekin bere garaiko hizkuntzan solasean.

Ildo horretan oinarrituta dago erakusketa: elkarrizketan, ikuspuntuen trukean, iritzien elkarbizitzan. Eta subjektibotasunean ere bai, egindako aukerei eta jorratutako gaiet dagokienez, istorio ofizialetatik guztiz at dagoen proposamen bat baitakar, bisitariak gehiago parte hartu ahal izan dezan, solaskide gisa, ikusiko duen horretan. Horregatik, erakusketa antolatuta dagoen zazpi eremuak ez datoz bat arte-joerekin, bere horretan, ezta garai hartako talde antolatuekin ere; aitzitik, aztergai dituzte itxuraz elkarrengandik urrun dauden artistak lotzen zituzten esperientziak, bilaketak, gustuak edo obsesioak, eta, bata bestearen inspirazio izan ez arren, garai hartan «airean zegoena» marrazten dute horrela.

Xede horrekin, hainbat diziplinako ehun artelanetik gora bildu ditu San Telmo Museoak, Europakoak eta Amerikakoak. Multzo horretan tartea egin zaie antzerki esperimenterari, argazkilaritzari nahiz dantzari, baita masa-kulturaren adierazpenei ere, hala nola zinemari eta modari. Eduardo Chillidaren eskultura- eta marrazki-sorta handi bat elkarrizketan ageri da XX. mendeko maisu handiekin. Areto hauetan topatuko ditugu pinturako izen i handiak –hala nola Picasso eta Miró– beren bokazio

eskultorikoaren gorenean; eskulturaren sortzaileak –Arp eta Julio González, esaterako–; baita Richier, Lobo eta Giacometti ere, gerraosteko eskultura-figurazioaren ordezkariak. Hemen dira, halaber, garrantzi handiko informalista eta espresionista abstraktuak –Motherwell, Millares eta Dubuffet, adibidez–; Moore, Hepworth eta Meadows, britainiar eskultura berriaren ikurrak; burdinazko eskulturaren asmatzaileak, hala nola Smith, Jacobsen eta Caro; zenbait irudi errepikaezin, nola diren Beuys, Chamberlain, Mendiburu, Hantaï, Asins eta Aurelia Muñoz; oraindik behar besteko zabalkunderik izan ez duten artista interesagarri batzuk –María Paz Jiménez, Villèlia, Bosshard edo Lardera, esaterako–; Ozu eta Bresson zinemagile sentikorak; argazkigintzaren iraultzaileak, hala nola Cartier-Bresson, Bing eta Callahan; eta, azkenik, koreograforik erradikalenak, Martha Graham eta Cunningham, esate baterako.

Guztien artean, garai hartako nazioarteko abangoardiaren mapa bat osatzen dute, 30 bat museo, fundazio eta bilduma pribaturen lankidetzari esker eratu ahal izan dena. Lankidetzaren horretan, bereziki nabarmentzekoa izan da Chillida Lekuren ekarpen esanguratsua, baita Gulbenkian Arte Modernoko Zentroarena, Reina Sofía Arte Zentro Museo Nazionalarena eta San Telmo Museoarena berarena ere.

María Bolaños, erakusketaren komisarioa

JARDUERAK

Hitzaldia

Chillida en conversación; María Bolaños

María Bolañosek erakutsiko ditu Chillidak bere garaiko artisten kezkekin, praktikekin eta baloreekin eduki zituen lotura kontzeptualak eta bisualak.

Ekainak 26

19:00 (gzt)

Ekitaldi aretoa

Sarrera libre lekuak bete arte + streaming

Bisita gidatuak

Asteartean: 10:30 (gzt) + 18:00 (eus)

Larunbatetan: 10:30 (eus) + 18:00 (gzt)

Bisita doan, sarrera erosi behar da. Izen ematea webgunean

Taldeentzako bisitak hitzartu daitezke

San Telmo Museoa.

Zuloaga plaza, 1. 20003 Donostia

www.santelmomuseoa.eus

Antolatzailea:



Erakunde babesleak:



Exposición
08-06-2024//
29-09-2024
San Telmo Museoa

UNA CONVERSACIÓN CHILLIDA Y LAS ARTES 1950-1970

EDUARDO CHILLIDA 100 AÑOS

Solemos ver a Eduardo Chillida como un escultor tan reconocible que no requiere explicación. Como si fuese un «unicum» en la historia del arte del siglo XX, cuya obra es tan personal que parece inabordable y casi intemporal.

Pero a pesar de esta aura de excepcionalidad, no podemos dejar de ver en él a un hijo de su tiempo. Todo artista lo es. Por ello, cuando «lanzamos» a Chillida en medio del océano artístico de sus contemporáneos, aflora la fina red de ideales, inquietudes y experimentos que circularon internacionalmente, no solo en las artes plásticas, sino también en la filosofía, la arquitectura, la danza, la fotografía o la música, pues él mismo se distinguió por su ambición reflexiva y su curiosidad cultural.

La exposición se centra en las dos décadas que transcurren entre 1950 y 1970, en las que el arte de Europa armó de nuevo, tras las tragedias bélicas, la trama de la modernidad. Fue, además, un momento fuerte en la historia de la escultura, que superó un letargo casi centenario y renació convertida en un arte nuevo y radical; y fueron, por último, años fundacionales para Chillida en los que construyó su personal visión del arte.

Décadas, pues, ricas, secretamente activas, cargadas de aventuras experimentales. De esta suma de aventuras se ocupa esta exposición; de sus reflexiones a varias voces, de sus relatos cruzados, de sus campos magnéticos. En suma, lo que nos propone es

presentar a Chillida «en conversación», hablando con la gente de su tiempo en la lengua de su tiempo.

Este es el tono en el que está concebida esta muestra: un tono conversacional, de intercambio de puntos de vista, de convivencia de opiniones. Y también de subjetividad en las elecciones y en los temas tratados, en una propuesta totalmente ajena a las historias oficiales, de modo que el visitante pueda sentirse más partícipe, como conversador, en lo que va a contemplar. Por ello, los siete ámbitos en que está ordenada no responden a las tendencias artísticas como tal, ni a los grupos organizados de la época, sino que exploran las experiencias, búsquedas, gustos u obsesiones que conectaban a artistas aparentemente alejados entre sí y que, sin inspirarse unos en otros, delinear lo que «está en el aire» de la época.

A tal fin, el Museo San Telmo ha reunido aquí más de un centenar de obras de arte europeas y americanas de distintas disciplinas, incorporando al conjunto ámbitos tales como el teatro experimental, la fotografía o la danza, junto a manifestaciones de la cultura de masas como el cine y la moda.

El nutrido conjunto de esculturas y dibujos de Eduardo Chillida conversa con grandes maestros y maestras del siglo XX. Encontramos en estas salas a grandes de la pintura en su mejor vocación escultórica, como Picasso y Miró; fundadores de la escultura como Arp y Julio González; a Richier, Lobo y Giacometti en

tanto que representantes de la figuración escultórica de la posguerra. También están presentes importantes informalistas y expresionistas abstractos, entre los que destacan Motherwell, Millares o Dubuffet; los mejores de la nueva escultura británica, como Moore, Hepworth o Meadows; inventores de la escultura en hierro, entre ellos Smith, Jacobsen y Caro; personalidades irrepetibles como Beuys, Chamberlain, Mendiburu, Hantaï, Asins o Aurelia Muñoz; interesantes artistas aún por difundir suficientemente, como María Paz Jiménez, Villèlia, Bosshard o Lardera; cineastas tan sensibles como Ozu o Bresson; revolucionarios de la fotografía —así Cartier-Bresson, Bing o Callahan—; o, finalmente, los coreógrafos más radicales, principalmente Martha Graham o Cunningham.

Entre todos ellos configuran un mapa de la vanguardia internacional de este período, que ha sido posible gracias a la colaboración de una treintena de museos, fundaciones y colecciones privadas, entre los que se distingue la significativa aportación de Chillida Leku, así como del Centro de Arte Moderna Gulbenkian y del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía además del propio Museo San Telmo.

María Bolaños, comisaria de la exposición

ACTIVIDADES

Conferencia

Chillida en conversación; María Bolaños

María Bolaños mostrará la red de conexiones visuales y lazos conceptuales que unieron a Chillida con las inquietudes, prácticas y valores de los artistas de su generación.

26 de junio

19:00 (es)

Salón de actos

Entrada libre hasta completar aforo + streaming

Visitas guiadas

Martes: 10:30 (es) + 18:00 (eus)

Sábados: 10:30 (eus) + 18:00 (es)

Visitas gratuitas, hay que comprar la entrada al museo.

Inscripción previa en la web del museo.

Se pueden concertar visitas para grupos.

San Telmo Museoa.

Zuloaga plaza,1. 20003 Donostia

www.santelmomuseoa.eus

Organiza:



Instituciones socias:



ELKARRIZKETA
BAI
CHILLIDA
ETA ARTEAK
1950-1970

Erakusketa
2024-06-08//
2024-09-29
San Telmo Museoa

EDUARDO CHILLIDA
100 URTE